

7. ARTIKULUA

Helburuak

Haur Hezkuntzak honako hauek egiteko gaitasuna garatzen lagundu behar dio haurrari:

- a) Norberaren gorputza eta besteena ezagutzea, baita harekin zer egin dezakeen jakitea ere, eta desberdintasunak errespetatzen ikastea.
- b) Bere ingurune familiarra, naturala eta soziala behatzea eta arakatzea.
- c) Bere ohiko jardueretan pixkanaka autonomia lortzea.
- d) Gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzea eta haiek erregulatzen hastea.
- e) Besteekin harremanak berdintasunean izatea eta pixkanaka elkarbizitzarako eta gizarte-harremanetarako funtsezko jarraibideak eskuratzea, baita enpatia erabiltzen eta gatazkak era baketsuan eta batere indarkeriarik gabe konpontzen trebatzea ere.
- f) Komunikazio-trebetasunak garatzea zenbait hizkuntza eta adierazpidetan.
- g) Komunikazio-trebetasun linguistikoak garatzea bi hizkuntza ofizialetan, euskararen erabilera sustatuta.
- h) Trebetasun logiko-matematikoak, mugimenduak, keinuak eta erritmoak ikasten hastea eta irakurtzen eta idazten hastea.
- i) Estereotipoak gainditzea eta pertsonen berdintasuna sustatzen duten arau sozialak sustatzea, aplikatzea eta garatzea.